

5. KOSTUAK

Kostuak ere kontuan izan beharko direlakoan; hauen plangintza zehatz bat egin dugu. Horrela, kostuak ere zati txikietan banatu ditugu, eta horrela, bide batez, hobeto azal ditzazkegu.

Horrela, kanpoko gobernuek diru laguntzak emango dizkigutela azladu behar da. Esate baterako, Eusko Jauralaritzaren laguntza jasotzeaz gain, Donostiako udaletxeko osasun arloko departamentuko laguntza ere jasoko dugulakoan gaude. Horrez gain, hainbat enpresek gurekin kolaboratuko dute, esaterako: Irizar, CAF... eta hauek akzioen bidez diru laguntzak ere emango dizkigute. Hau horrela delarik, laguntza hau hainbat zatitan banatuko dugu, esaterako, langileen soldata, garraio bideak, altzairugintza, ura, tresna (teknologikoak barne) eta Auzolan enpresa eta “Eco Swap” enpresaren kostua ere noski; izan ere, hauekin egingo dugu lan. Beraz, kostuak bi zati nagusitan banatuko ditugu: kostu finko eta aldakorrak:

Hasteko, langileei dagokienez, hauek bi zatitan banatuko ditugu: Ikasle eta ofizinak. Ikasleek, jantokia erabiltzerako garaian, soberakinak zakarrontzira zaborretara bota beharrean, tuperretan sartuko dituzte (etekin monetariorik jaso gabe) eta ofizinetako langileek, papeleo eta dei gestioak egingo dituzte (etekin monetarioa lortuz). Horrela, enpresa txiki bat izango delarik, langile kopurua ere ez da handia izango, beraz, hauen kostua ez da bereizgarria izango. Ikasleak lan mota hauetan ohitzea eta barneratzea gustatuko litzaiguke; izan ere, honen bidez, hainbat balore jaso ditzazketelakoan gaude: janariaren balioa, eskertasuna, etab.

Bigarrenik, garraioaren kostua izango genuke, gure enpresaren ein-a soberakinak garraiatzea delako beste leku batzuetara, behar dutenengana hain zuzen ere. Hau gutxi balitz ere, ahalik eta garraio bide ekologikoenak erabiltzen saiatuko gara; esaterako, bizikleta, kotxe, kamioi eta motorrak ekiditen saiatuz; gaur egun, horrelako ekimenei garrantzi handia ematen zaielako eta honela, gainera, bide batez, ospe hobe lor dezakegu.

Hirugarrenik, informazioa hedatzeko eta gure enpresa jakitera emateko hainbat ekimen prestatu nahi ditugu. Ekimen hauek aurrera erameteko hauen kostuak ere buruan izan behar dira: JJ enpresaren informazioa duten kartelak (diseinatu, imprimatu) hirian zehar ipini eta iragarkiak sortu hauek etxebizitzetako eta garraio bideetako telebistetan ateratzeko.

Laugarrenik, Auzolan eta Eco Swap enpresen kostua ere kontuan izan beharko dugu. Honako hau kostu garrantzitsuenetariko bat izango da, garrantzitsuena ez bada; izan ere, Auzolan enpresari dagokonez, hauek baldintzatuko dizkigute sobrakinak eta Eco Swap enpresak berriz tuperrak. Horrela, Auzolan enpresari kostuetako %30 ordainduko diegun bitartean Eco Swap enpresari kostuetako %20a ordainduko diegu.

Azkenik, kostu aldakor nagusiak alde batera uztiz, ofizinetako kostu finkoak ere kontuan hartu beharra delakoan gaude. Ofizinek; argindarra, lurra, ura, tresna, elektronikoak, instalazioak, etab. izan ohi dituztenez, hauen kostuak ere azpimarragarriak direlakoan gaude. Lehen esan bezala, hauek ordaintzeko, diru laguntzen zati bat erabiliko dugu.